

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO ERRIOXAKO UR PARTZUERGOA

Hasierako onespena ematea ur homidura eta hondakin uren tratamendu zerbitzuaren prezioak arautzen dituen ordenantza aldatzeari

Arabako Errioxako Urkidetzak, lehendakariaren 2020ko apirilaren 16ko erabakiaren bidez, erakundearen estatutuen 20.1.g puntuan aurreikusitakoaren arabera, aldeko irizpena eman zion ur hornidura eta hondakin uren tratamendu zerbitzuak ematearen prezioak arautzen dituen ordenantzaren 2.7 puntua aldatzeari (ALHAO, 22 zk., 2020ko otsailaren 24koa, astelehena), eta honela geratu zen idatzita:

2.7. Sute-zutabearen zerbitzua: hiruhileko kostua.

Kostu finkoa. kontagailua: 11,42 euro.

Kostu aldakorra. Kontsumoa, metro kuboak: 1,50 euro.

Erabilera arrazoitua bada, hala nola, suhiltzaileek erabili dutelako edo partzuergoak aztertu eta onartu duelako, ordaintzetik salbuetsi daiteke.

Bat etorri Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoarekin, jendaurrean jartzen da, interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak idatziz aurkezteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; erabaki hau behin betiko onartutzat joko da erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Guardia, 2020ko apirilaren 16a

Lehendakaria

JUAN JOSÉ GARCÍA BERRUECO